

Josu Zabalaren heriotza • Bigarren urteurrena

Basajaun kasua: itzal gehiegi

Bi urte igaro direnean, Josu Zabala 'Basajaun'-en heriotzaren inguruan itzalak dira nagusi argiak baino gehiago.

Familiak uste du litekeena dela epaileak kasua artxibatzea

Hau oso mantso doa, ahaztu nahiko balitz bezala. Beldurra daukagu egunen batean kasua artxibatuta agertuko dela, eta suizidioa izan balitz bezala gainera». Josu Zabalaren familiak ez du etsi nahi, baina Eibarko epaitegian kasua argitzeko egiten ari diren diligentzien martxa ez da haiek nahiko zuketen bezain bizkorra. Josuren hilotza —*Basajaun* esaten zioten beti lagunek— Deba inguruan azaldu zenetik bi urte bete diren honetan, ezer gutxi aurreratu da hasieratik Ertzaintzak botatu zuen bertsio ofizialetik: suizidioa izan zela alegia. Familiak itzal gehiegi daudela uste du, ordea.

Berria Korrikaren aurreko aldiaren bukaera ekitalditik hiru egunera ezagutu zen. Zabala, Iruñean ezagun askoa zen gaztea, hilotz aurkitu zuten Deba ondoko larre batean, itsaso ondoan. Lehen ikerketek pentsaraz zezaketenarenaz bestera —ez zegoen odol arrastorik inguruan, bala ez zen aurkitu, gazteak zantzu arraroak zituen buru aldean— lehen bertsio ofizialak suizidioa aipatu zuen, eta Eibarko epaitegiaren esku gelditu ziren diligentziak kasua argitzeko, familiak abiarazitako prozesuan.

Hilotza aurkitu eta bi aste-
ra (apirilaren 10ean) ezagutu ziren autopsiaren lehen emaitzak. Ondorioztatu zen orduan bihotza lehertu zion tiroa larruazalaren kontrakontratik egin zela, eta bi eskuetan bazirela tiroaren arrastoak. Pistolan ez zen hatz markarik, ordea. Familiak berehala eskatu zuen beste autopsia bat, eta salatu zuen lehenean ez zirela burmuina eta erraiak aztertu, nahiz eta bertan arrasto asko aurki daitezkeen. Tartean iritsi zen Josu hil zuen pistolareneko analisia, familiaren zalantzak areagotu zituen. Madrilgo Polizia Zientifikoak eginiko analisiaren ondorioetan esaten zen errebolberrean ez zegoela odol, azal edo oihal arrastorik. Horrek gezurtatu egiten zuen disparoa azala ukituz egin zela, horrelakoe-tan beti geratzen direlako itsatsita arrasto organikoak.



Nerea Zabala, ostiralean Iruñeko bere etxean, anaia hilaren argazkia aurrean duela.

MIKEL UHARTE

«Ezin da suizidioa baieztatu»

Bigarren autopsiaren esperoran gelditu ziren orduan senideak. Honek, iazko azaroan

eginiko txostenean azpimarratzen zuen bala ez zela aurkitu bertan, eta Josuren oinetakoetan itsatsita zegoen lurra ez zela ingurukoa. Ondorioak oso garbiak ziren,

halaber: dauden datuekin ez dago esaterik non gertatu zen heriotza, eta «ezin da baieztatuz suizidioa izan zenik». Gainera, beste norbaitek parte-hartzea izan zela pentsatzeko

zantzuak bazeudela zioen medikuak.

Berriki, familiak bi medikuen arteko froga periziala eskatu du, eta baita azken asteetan Josurekin tratatu zutena izan zuen Iñaki Bilbaoren deklarazioa ere. Bilbaok, iazko ekainean Gernikan atxilotua izan ondoren, deklaratu zuen Zabalak eta berak ETA-ren Bizkaia Komandoa berrosatzeko agindua jaso zutela 1997an, eta martxoaren 23ean —hau da, Josuren gorpua azaldu baino hiru egun lehenago— erakundeko kide batekin taberna batean zuten hitzordura azaldu zirela. Bilbao kanpoan gelditu zen, baina mugimendu susmagarriak ikusi zituenean alde egin zuen. Itzuli zenean, Josu ez zegoen. Kontuan harturik heriotza aurreko egunetan bi taldekideek tratatu zutena izan zutela, familiaren abokatuak eskatu zuen Bilbaoren deklarazioa, baina epaileak ukatu egin du. Familiak errekurtsioa aurkeztu du, eta epaileak erantzun egin beharko du laster.

Familiak dena gehiegi luzatzen ari den sententzia dauka. Dena inoiz argituko ote den zalanza ere bai. «Egiten bada, zer epaiketa klase izango da? Froga zehatzak egongo balira... baina ez dago ezer».

Alberto Barandiaran
IRUÑEA

Nerea Zabala • JOSU ZABALAREN ARREBA •

«Etxean argi dugu Josu eta Ttotto hil egin dituztela»

■ **Bi urte egin direnean, azken berria da epaileak ez duela onartu Iñaki Bilbao ekartzea deklaraziora. Zer sentitzen duzue oraindik oztopoak topatzen dituzuenen?**

Beldurra. Hasieratik eskatu ditugu tramite eta froga asko, eta ez digute ezer eman. Horregatik inpotentzia ere badugu, ezin ezer egin.

■ **Ikerketen ondotik eta autopsiaren emaitzekin, badirudi ezin dela ziurtatu Josuk bere buruaz**

beste egin zuela, eta hala ere hori da lehen egunetik bertsio ofiziala.

Hasieratik esan da hipotesi guztiak zirela kontuan hartzekoak, baina, badaezpada ere, suizidioarena bota zuten, eta hori errepikatzen dute gero. Argi dagoena da froga zehatzik ez dela, baina zantzu guztiek hilketara daramatela.

■ **Egunotan Jose Luis Gerestaren kasua aurrez aurre topatzea ere gogorra izango zen zuentzat.**

Bai, gainera ikusten dugu

kasu berdina dela. Ez daki-gu nor izan den baina etxean argi daukagu Josu eta Ttotto hil egin dituztela.

■ **Nola ikusten da, horrela-ko zama batekin, su-etena eta egoera berria?**

Egoera politiko berria itxaropenez ikusten dugu, baina guk garbi dugu bake prozesuan egonda ere ez dugula Josuren kasua alde batera utzi behar. Ezin gara atzera begira bizi beti, eta ez gara hala bizi, bestela ezingo genuelako horrela segitu, baina ezin dugu kasua horrela

utzi. Erantzukizunak eskatu behar ditugu, nahiz eta agian une aproposa ez izan.

■ **Erraza da indarrari eta gogoari eustea denbora joan ahala?**

Aurrera segitzeko, ez bagenu zer edo zer egingo Josuren kasuarekin, beti negarrez eta sofrizten egongo ginen. Nik uste dut bere konpromisoaren testigua hartu dugula. Hilketa bat ez da inoiz gaintitzen, baina berarekin ohitzeko lan egin behar da. Bestela zulo batean geldituko ginatke.